

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Osoko Bilkurak **2025eko martxoaren 27an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

5.- 2025eko Auzotasun programa garatzeko hitzarmen markoa (2025ZDIZ0012)

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

“ Aitor Gerenabarrena jaunak (Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak eta batzordeko idazkariak) 2025eko otsailaren 18an egindako bileran (CSV zkia: ESKUfd7eb903-fc55-4ef2-85ab-40ee923accfd) batzordeak honako DIKTAMENA egin du:

2013an Oñatiko Udalak auzotasuna deritzon laguntza programa abian jarri zuen eta ordutik hona urtero mantendu izan da. Auzotasuna deritzon programaren xedea da Oñatiko landa auzoetako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzea eta auzotarren harremanak sustatzea. Auzoaren izaera eta nortasuna indartu eta auzo bizitza mantendu ez ezik indartzen ere laguntzen duten jarduerak bultzatzea da helburua.

2025ean Auzotasun Programarekin jarraitzeko helburuarekin auzotasun programa garatzeko hitzarmen eredia aurkeztu du teknikariak.

2025eko urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran onartu zen 2025eko Udal aurrekontua. Bertan jasotakoaren arabera, auzo bakoitzaren izenean jasota dagoen diru-atala honakoa da:

auzoa	diru-kopurua	auzoa	diru-kopurua
Arantzazu	6.176,89	Murgia	6.574,87
Araotz	9.924,76	Olabarrieta	18.826,71
Berezaio	4.803,80	Santxolopetegi	4.400,00
Garagaltza	7.670,14	Torreauzo	4.400,00
Garibai	4.400,00	Uribarri	6.591,98
Goribar	4.400,00	Urrexola	4.400,00
Larraña	8.051,73	Zañartu	4.400,00
Lezesarri	7.074,08	Zubillaga	15.267,46
			117.362,42 €

Gaia aztertu ondoren, Landa Garapen Batzordeak aho batez honako erabaki har dezala eskatu dio Udal Osoko Bilkurari:

ESKU8b5f6576-7e4d-4cd7-b1f8-54b3a41a5932

2025eko auzotasun-programa garatzeko hitzarmen eredia onartu dezala.”

Gaia aztertuta, eta Landa Garapen batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik denak bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazi geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua araber.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025ZDIZ0012-ZIURTAGIRIA/CERTIFICADO (OÑATIKO UDALA)